

EMAKUMEAK ETA KLIMA ALDAKETA TOPAKETA
IRUÑEA, URRIAK 15-16
NAFARROA 2018

ADIERAZPENA

#EMAKUMEOKLIMA



Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra



PARLAMENTO DE NAVARRA
NAFARROAKO PARLAMENTUA

EMAKUMEAK ETA KLIMA ALDAKETA TOPAKETA

IRUÑEA, URRIAK 15-16

NAFARROA 2018



EMAKUMEOK KLIMA ADIERAZPENA

Iruñean, 2018ko urriaren 15 eta 16an.

2018ko urriaren 15ean lan-saioan bildurik **“POLITIKA, EMAKUMEAK ETA KLIMA-ALDAKETA”**, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak sustatuta, Nafarroako Parlamentuaren laguntzarekin, eta Parlamentuak Iruñean duen egoitzan garatuta, adierazpen hau formulatzen da, emakumeek klima-alaketaren arloan egindako ekarpenak ikusarazi, aitortu eta sustatze aldera.

Politikan dihardugun [kontseilariak, diputatuak, senatariak, parlamentariak, alkateak, zinegotziak] eta kudeaketa publikoan erantzukizuna dugun [Nafarroako Gobernuko eta haren organismo publikoetako zuzendari nagusiak eta zuzendari kudeatzaileak] emakumeok parte hartu dugu hartan; gure ezagutzak ekarri ditugu, beharrezko bultzada eta konpromiso eraginkorra lortzen laguntze aldera klima-alaketaren borrokan ahalik eta azkarrena aurrera egin ahal izateko. Lan horren emaitza gomendio eta konpromiso sorta bat izan da, planifikazioa, kudeaketa eta jarduketa sustatu nahi dutenak klima-alaketari eta emakumeen rolari dagokienez.

Politika publikoak sortu eta gauzatzen dituztenentzat da adierazpen hau, hots, gobernu, tokiko entitate, nazioarteko erakunde, pertsonal akademiko, enpresa eta jendarte zibilarentzat. Horregatik, gu parte-hartzaileok, emakume politikari eta kudeatzaile publikook, adierazpen hau igortzen dugu urriaren 16ko lan-bilerara, Iruñeko Baluartan, nahi duen orok berretsi eta partekatu dezan, topaketa honetan egindako lanari babesa emanda..

EMAKUMEAK ETA KLIMA ALDAKETA TOPAKETA

IRUÑEA, URRIAK 15-16

NAFARROA 2018



HITZAURREA

AITORTUTA Giza jarduerak eragindako berotegi-efektuko gasak isurtzea dela kliman mundu mailan gertatzen ari den aldaketaren arrazoi nagusi probableena eta planetaren beroketa globala gertatzen ari dela zalantzarik gabe.

AITORTUTA Beharrezkoa dela erabakitasunez aurrera egitea jasangarritasunaren kulturen finkatutako gizarte- eta ekonomia-ereduetaranzko trantsizio ordenatuan eta hartan existitu daitekeen ekonomia bakarra ekonomia zirkularrean, bidezkoan eta karbonoaren inpaktu apalean oinarritutakoa dela.

AITORTUTA Klima-aldaketaren ondoriozko arriskuak eta eszenario berriak dituztela aurrean emakume eta gizonek, hala nola bero-boladak, uholdeak, erauntsiak eta lehortek, segurtasunari eta osasunari dagokienez, erikortasuna eta hilkortasuna handitu ditzaketenak, batez ere emakumeenak.

AITORTUTA Emakumeek beste era batean esku hartzen dutela klima-aldaketan eta garapen jasangarrian, jokabide desberdinak erakusten dituztelako mugikortasunari, baliabideen erabilerari –haiek erabili eta kontrolatzeko aukera gutxi baitute– eta kontsumoari buruz hartu ohi dituzten erabakiei dagokienez.

AITORTUTA Emakumeen ezagutza eta gaitasunak funtsezkoak direla bai egokitze bai arintzeko neurriak hartzeko orduan, zeren eta, askotan, gaitasun espezifikoak erakusten dituztelako baliabideak modu jasangarriagoan erabiltzeko zein premiak asetzeko krisi-egoeretan.

EMAKUMEAK ETA KLIMA ALDAKETA TOPAKETA

IRUÑEA, URRIAK 15-16

NAFARROA 2018



AITORTUTA Genero-berdintasuna beharrezko betekizuna dela garapen jasangarriko eta klima-erronken kudeaketa eraginkorrerako, emakumeak aldaketa-bektore ahaltzuak direla –izan ere, parte hartzeko aukera guztiak ematen bazaizkie, estrategia eraginkorrak formulatu eta gauzatu nahiz egokitzeko eta arintzeko konponbideak ekar ditzaketelako arazoaren aurrean–, eta esperientziak eta ezagutza praktikoak dituztela sektore askotan [nekazaritza, ura, energia, osasuna, hezkuntza... hirietan zein herrietan].

AITORTUTA Mugimendu ekofeminista erreferentea dela klima-aldaketari genero-ikuspegitik aurre egiteko orduan, hain zuzen ere, emakumeen mendekotasunaren eta naturaren ustiapen suntsigarriaren arteko lotura ezartzean.

GOGORARAZITA Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioak (UNFCCC) klima-aldaketaren inguruko nazioarteko ekintzarako helburuak, printzipioak eta arkitektura instituzionala ezartzen dituela eta 2015eko abenduaren 12ko Parisko Akordioak aurreikusten dituela alderdiek beren betebeharrak kontuan hartu behar dituztela, klima-aldaketaren aurkako neurriak hartzeko orduan, giza eskubideei, genero-berdintasunari eta abarrei dagokienez.

GOGORARAZITA 2016ko Corkeko Adierazpena, landa-komunitate eta -eremuek Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Helburuak [batez ere 5. eta 13. helburuak] erdiesteko jokatzeko duten funtsezko rolari dagokionez, zein Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren [UNFCCC] alderdien [COP21] urteko konferentziaren 21. saioaren konklusioak, baita Europako Parlamentuak “Emakume, genero eta justiziari buruzko txostena” onetsi zuela 2018ko urtarrilaren 16ko osoko bilkuran.

EMAKUMEAK ETA KLIMA ALDAKETA TOPAKETA

IRUÑEA, URRIAK 15-16

NAFARROA 2018



GOGORARAZITA 2018ko urtarrilaren 24ko gobernu-saioan onetsitako HCCN-KLINA

klima-aldaketa bide-orrria, sektore-politiken koordinazioan, lurralde-eragileen lankidetzan eta gizarte nafarraren bilakaeran –jasangarritasunarekiko sentikor eta konprometituta– oinarritua, lanabes globala dela Nafarroan eta genero-ikuspegia modu transbertsalean planteatzen duela.

ATSEGINEZ GOGOAN HARTUTA NBE-Emakumeen programazio-ekimen enblematikoak, Klima Aldaketaren aurkako Mundu Aliantzaren proiektuak, generoaren eta klima-aldaketa arteko lotura transbertsala eragiten dutenak, baita Parisko Akordioaren negoziazioan funtsezko papera jokatzeko ari diren zein mundu osoko eskualde, hiri, enpresa eta GKEetan klimari buruzko neurri handinahiak bultzatzen jarraitzen ari diren emakume lider ugarien ekimen eta jarduerak ere, ondokoak ere ahaztu gabe: “C40 Hiriak” eta “Energian, ez emakumerik gabe” ekimenak eta “Women 4 Climate” programa, emakume liderren hurrengo belaunaldia ahaldundu eta inspiratu nahi duena.

SINETSITA Emakume eta gizonen arteko berdintasuna zein emakumeak ikusaraztea eta haien konpromisoa, ekintzak eta lan-moldeak nabarmentzea lagungarri izango direla herritar, administrazio, enpresa eta gizarte-eragile guztiek beren gain har dezaten behar-beharrezkoa dela klima-aldaketa aurre egiteko beste moduetarantzko trantsizioa.

SINETSITA Klima-aldaketa aukera dela emakumeen ekarpenaren indarra erakusteko eta, horrela, eredu berdinzaleago eta natura zein pertsonetikiko –batez ere emakumeekiko– begirunetsuago baterantzko trantsizioa egiten laguntzeko.

ADIERAZTEN DUGU Hitzematen dugula:

Zeharkako ikuspegi batetik klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko politikak eta egoera integratu eta elkarrekin lotutakoen garapena indartzeko, emakumeek jarduketara eta politika horien integrazio bertikalean eta horizontalean duten egitekoa sendotuz, batzuek besteei nola eragiten dieten aitortuz, eta haiek jarduera-eremu desberdinetatik garatzeko, aitorpenean jorratzen diren gai guztiak barne hartuta



AHALDUNTZEA, HEZKUNTZA ETA OSASUNA

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA KLIMA-ALDAKETARI BURUZKO ERABAKIAK HARTZEKO ORDUAN

Emakumeen ordezkaritza indartzea klima-aldaketari buruzko negoziazioetan, haien prestakuntza eta parte-hartzea finantzatzuz, emakume-antolakuntzen eta gizarte zibilarren jardueren arteko kontaktu-sareak bideratuz eta babestuz klima-aldaketaren inguruko politikak prestatzeko eta aplikatzeko dagokienez, emakumeen berdintasuna bermatuz, parte-hartzaile eta onuradun gisa, munduan, Europan, estatuan, autonomia-erkidegoan eta udalerrian klima-aldaketaren inguruan antolatzen diren kontsultetan, programetan eta finantzaketan.

JASANGARRITASUNAREN KULTURA BERRI BATEAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA

Ume eta gazteen sormenaren, parte-hartzearen eta haien arteko eztabaidaren bitartez klima-aldaketaren errealitatearen ezagutza sustatzea hezkuntza-esparru guztietan. Esparru horietan, genero-ikuspegia txertatuta egon behar du hurrengo belaunaldietan gizarte jasangarri eta demokratikoaren aldeko konpromisoa finkatzeko xedez.

KLIMA-ALDAKETAK OSASUNEAN DITUEN ONDORIOEI BURUZKO AZTERKETAK ETA PROGRAMAK, BATEZ ERE EMAKUMEENTZAT

Klima-aldaketak osasunean duen inpaktu zuzenaren eta zeharkakoaren aurrean egokitzeko eta erantzunak emateko osasun-programak genero-ikuspegiarekin garatzea, ahulezia-faktore espezifikoak dituzten kolektiboei arreta berezia eskainita, esaterako, gaixoei, haurrei eta adinekoei eta, bereziki, pertsona behartsuei edo bakartze sozialeko egoeran daudenei eta langileei. Besteak beste, klima-aldaketak osasunean eragiten duten ageriko inpaktuetara egokitzeko programak landu beharko dira, esaterako, bero-boladen ondorioak, kutsadurarenak, alergenoei osasunean dituzten eraginak eta haien banaketa aldatzen duten gaixotasun eta bektoreak, elikagai-, energia- eta ur-kontsumoaren portaerak, etxebizitzak eta lantokiak eta lan-baldintzak egokitzeko premia eta gaixotasun berriei aurre egiteko osasun-zerbitzuen erabilgarritasuna

EMAKUMEAK ETA KLIMA ALDAKETA TOPAKETA

IRUÑEA, URRIAK 15-16

NAFARROA 2018



LURRALDEA, BERRIKUNTZA, ENERGIA ETA MUGIKORTASUNA, KONTSUMOA, TURISMOA, MERKATARITZA ETA FINANTZAKETA

EMAKUMEAK, LURRALDE JASANGARRI BATERAKO ALDAKETAREN ERAGILEAK

Emakumeek sektore desberdinetako eta administrazio publikoetako organo erabakitzaileetan presentzia izatea ziurtatzea eta defendatzea, klima-aldaketa barne hartzen duen lurralde-politika eta -kudeaketa egiteko modu berri bat bermatuz.

Landa-eremuetan bizi diren pertsonak nekazaritza jasangarri bateranzko eta ingurumena errespetatzen duen nekazaritzaranzko aldaaketaren eragileak izatea sustatzea eta enplegu berdeak sortzen modu garrantzitsuan laguntzea. Emakumeei laguntzea lur-jabetzarako eta nekazaritza-kreditu eta -metodo jasangarrietarako sarbidea izateari dagokionez, ekosistemen babesa, ur-baliabideak, lurzorua emankortasuna eta komunitateko eraikuntza barne direla.

Erauzketa-lurraldeetan giza eskubideak defendatzen dituzten emakumeak babestea eta lurraldeekiko zein biztanleekiko begirunetsuagoa izango den erauzketa ondoko eredu bateranzko trantsizioari buruzko debatea sustatzea.

Nabarmentzea emakumearen rola I+G+B arloan eta haren lidergoa sustatzea ikerkuntzan, energia berriztagarrien eta klima-aldaaketaren arloetan zehazki.

ENERGIA-EFIZIENTZIA ETA MUGIKORTASUN JASANGARRI ETA SEGURUA

Eraginkortasun energetikoari, autokontsumoari eta energia berriztagarriei buruzko jakintzen elkarrizketa ahalbidetzea komunitate, erakunde eta enpresetan, klima-aldaketara egokitzen laguntzeko xedez.

Baliabide eta zerbitzuetarako irisgarritasuna, espazio kolektiboen berreskuratzea eta bizi-kalitate handiagoa bermatuko dituen mugikortasun-eredu jasangarria aukeratzen laguntzea.

EMAKUMEAK ETA KLIMA ALDAKETA TOPAKETA

IRUÑEA, URRIAK 15-16

NAFARROA 2018



ERABAKI JASANGARRIETARAKO ORIENTAZIOA KONTSUMO-, TURISMO- ETA MERKATARITZA-ARLOETAN

Jasangarritasunean eragin dezaketen eguneroko kontsumo kontzienteko erabakietarako informazioa eta aukerak eskaintzea, esaterako, tokiko elikagaiak aukeratzea, elikagaien xahuketa saihestuta; izan ere, horrek, ikerketen arabera, % 5eraino murriztu litzake kontsumitzaileen berotegi efektuko gasen isuriak.

Merkataritza eta turismoa sustatzeko estrategiak bultzatzea, sektoreak eta kontsumitzaileek klima-aldaketaren aurkako borrokarekin duten konpromisoa berretsi eta indartuko duten politikak eta ekintzak bertan txertatuz.

AURREKONTUAK ETA FINANTZAKETA PUBLIKOA BERMATUA KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO BORROKARAKO

Klima-aldaketara egokitzeko finantzaketa bermatzea eta eskualdeek eta toki-entitateek sustatutako politika sektorial guztietan bere ondorioak arintzea, kolektibo ahulenetan duen inpaktua balioesteko aukera emango diguten aplikazio- eta jarraipen-adierazleak txertatuz, genero-ikuspegia ere kontuan hartuta.

Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioan [KANBEK] aintzat hartutako hiru mekanismo finantzarioek -Klimarako Funts Berdeak, Munduko Ingurumenerako Funtsak [FMAM] eta Egokitzen Funtsak-, konpromisoa bistaratzeko eta zerikusia duten arazoei aurre egiteko emakumeen jarduerari laguntzeko aukera emango duen inbertsio-politikarako finantzaketa gehiago ematera bultzatzea.

EMAKUMEAK ETA KLIMA ALDAKETA TOPAKETA

IRUÑEA, URRIAK 15-16

NAFARROA 2018



PARTE-HARTZEA, EKINTZAILERIA, ADMINISTRAZIOA, GARDENTASUNA

KONTZIENTZIAZIOA ETA PARTE-HARTZEA, PERTSONA AHULENEI LAGUNTZEKO OINARRIZKO LAN-TRESNAK

Generoaren eta klima-aldaketaren arteko lotura hobeto ulertzeko, kontu horri buruzko kontzientzia sortzeko eta emakumei eta neskei eragiten dieten kontu guztiei buruz galdetzeko lan egitea.

Parte-hartzea politikak legekotzat jotzen dituen gakoa dela eta emakumeen ahotsa haren barruan funtsezkoa dela azpimarratzea eta garatutako politiketan herritarrek duten parte-hartzean genero-ikuspegia sartzea.

EMAKUMEEN JARDUNA PROIEKTU JASANGARRIAK ASMATZEKO ETA GAUZATZEKO

Emakumeen jardunbide jasangarri historikoak aitortzea eta bistaratzea eta emakumeak beraien artean antolatzeke eta proiektu jasangarriak sortzeko gaituko dituzten proiektuak sustatzea, energia garbia lortzeko baliabide naturalak baliatuz eta ekonomia zirkularreranzko trantsizioa erraztuz.

EMAKUME ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUN-PRINTZPIOAREKIN KONPROMETITUTAKO HERRI-ADMINISTRAZIO GARDENA, KLIMA-ALDAKETAREKIN ETA GENERO-BERDINTASUNEKO POLITIKEKIN ARDURATSUAK DIREN GIZA TALDE PROAKTIBOAK DITUENA

Administrazioetako langileen artean klima-aldaketaren aurkako borrokarekin zerikusia duten politikei buruzko ezagutza eta sentsibilizazioa ahalbidetzea genero-ikuspegitik, bereziki emakumei eragiten dietenak azpimarratuz, eguneroko jardueran egokitzeko eta arintzeko neurriak bideratuz.

Administrazioan bertan emakume eta gizonezkoen arteko ordezkartza orekatua azpimarratzea, klima-aldaketan adituak diren emakumeen erreferenteak identifikatzea eta bistaratzea eta berdintasun-printzipioaren eta genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna nabarmentzea.

Klima-aldaketaren inguruan egindako politikei buruzko informaziorako sarbidea erraztea, Gobernu, Parlamentu eta toki-entitateen emaitzak, aurrerapenak eta ebaluazioak aurkeztuz, emaitza-adierazleak eta genero-adierazleak ezarri.



ARRISKUAK ETA LARRIALDIAK, ETXEBIZITZA, PRESTAZIO SOZIALAK, EREMU NATURALAK, IBAIAK ETA HONDAKINAK

PREBENTZIOA HONDAMENDIEN AURREKO ARRISKU ETA LARRIALDIETAN

Hondamendi eta arriskuen kudeaketa-planak sustatzea genero-ikuspegitik, gizarte zibilak klimarekin zerikusia duten hondamendien aurretik (prebentzioa), hasitakoan (alerta goiztiarra) eta ondoren dagoen babesari buruz duen ezagutza babestuz, emakumeek erabakiak hartzeko orduan parte hartuko dutela ziurtatuz, bai komunitateen barruan sare sozialak eratzeko duten gaitasunagatik, bai euren lurraldeetako egituren eta gaitasunen ezagutzagatik, besteak beste.

EMAKUMEAK ALDAKETA-ERAGILE GISA ETXEBIZITZA-KUDEAKETAN ETA PRESTAZIO SOZIALETAN.

Klima-aldaketa-aren eta etxebizitzaren ezaugarrien arteko erlazioari buruzko informazioa eta sentsibilizazioa bultzatzea.

Gizon eta emakumeen gaitasuna sustatzea familia-unitatean ohiturak aldatzeko eragile gisa, klima-aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko.

Prestazio sozialak jasotzen dituzten familia-unitateetan ohitura jasagarriak hartzeko konpromisoak bultzatzea, gizarteari ingurumen-hobekuntza moduan itzultzeko.

EMAKUMEK BALIABIDE, EREMU NATURAL ETA IBAIEN ERABILERAN ETA KUDEAKETAN ETA HONDAKINEN MANEIOAN DUTEN ZEREGIN GARRANTZITSUA INDARTZEA

Gure planetan bizi-baldintzak bermatzeko oinarritzko elementuak diren baliabide naturalen, basoen, ibaien eta itsasoen kudeaketa jasagarriaren zein hondakinen kudeaketa egokiaren garrantziari eta gardentasunari buruz informatzea eta sentsibilizatzea. Klima-aldaketa mehatxua da faktore eta ekosistema horientzat eta gizateriarentzat eta, aldi berean, beraietan daude soluzioak. Emakumeek lagundu egin dezakete soluzio horiek bilatzen eta, horregatik, nahitaezko aldaketa-eragiletzat jo daitezke konprometituta ditugun jasagarritasun-helburuak lortzeko zein ekonomia zirkularra sustatzeko.



GAZTERIA, KULTURA, GIZARTE ESKUBIDEAK, ENPLEGUA, UNIBERTSITATEAK

GAZTERIA ETA KLIMAREN ALDE EGITEKO SORMENA

Esperientzia sortzaileak eta arrakastatsuak trukatzeko eta hedatzeko laguntzea, gazteriak klima-aldaketaren aurrean egiten duen ekarpena ausarta bultzatzeko, gazteen klimaren aldeko sareak eta mugimenduak babestuz eta sare eta mugimendu horietan emakume gazteak sartzearen aldeko apustua eginez eta klimarako emakume lider berriak prestatzeko eta gaitzeko ekintzak antolatuz.

KOLEKTIBO DESBERDINEN KLIMA-URRAKORTASUNERA EGOKITUTAKO GIZARTE-POLITIKAK

Erresilientzia eta klima-aldaketaren ondoriozko fenomenoaren aurrean urrakortasun-egoerak gainditzeko errazten duten neurriak txertatzeko gizarte-politiketan, genero-ikuspegia ere tartean dela.

Klima-aldaketa migrazioaren arrazoi bat dela aitortzea eta, lankidetzaren bidez, migrazio segururako munduko ituna lortzeko laguntzea, giza eskubideetan oinarritutako neurriekin eta genero-berdintasuna txertatuz kausa horregatik lekualdatutako pertsonen premiekin modu koherentean.

ENPLEGU-AUKERA BERRIAK EMAKUMEENTZAT ARINTZEAN ETA EGOKITZAPENEAN

Energia-teknologia berriei, ekonomia zirkularrarekin eta klima-aldaketarekin erlazionatu daitezkeen gainerakoekin zerikusia duten arloetan emakumeen enplegu- eta ekintzazailtasun-aurkaria eskaintzea eta indartzea, ondorioak arintzeko eta egokitzeko helburuetan aurrera egitea hobeto bermatzen duten mekanismo bereizleak bitartez, eredu ekonomikoaren aldaketa sustatuz.

IKERKETA ETA UNIBERTSITATEAK KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO EKINTZA PARTEKATUAN

Unibertsitateetan sustatzea fakultateetan kontuan hartu beharreko zeharkako gai gisa klima-aldaketaren txertaketa; genero-ikuspegia barne hartzea; lankidetzaren bidez eta ezagutza-trukea ahalbidetzea; gizarte-zibilari eta administrazioei ikerketaren emaitzak irekitzea, eta baita kolektibo sentikorrenentzat irekitzen diren soluzioak ere.

EMAKUMEAK ETA KLIMA ALDAKETA TOPAKETA

IRUÑEA, URRIAK 15-16

NAFARROA 2018



EMAKUMEEN PRESENTZIA DUTEN ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAK EGITEN DITUZTEN ERAKUNDE ETA INSTITUZIOEN ARTEKO LANKIDETZA BABESTEA ETA INDARTZEA

**KLIMAREN ALDEKO EMAKUME AKTIBOEN SAREA ERATU DUGU, HEMEN ADIERAZITAKO ASMOTIK
JARRAIPENA EGIN ETA EMANGO DIENA.**

Nafarroako Gobernuak Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiari eta Berdintasunerako Nafarroako Institutuari eskatu diogu Adierazpen honen publikitatea egiteko eta horri eta KLIMAREN ALDEKO EMAKUMEEN SAREARI egindako atxikipenak mobilizatzeko.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiogu Nafarroako Gobernuari "Emakumeak eta Klima Aldaketa" topaketa hau antolatzeagatik eta Nafarroako Parlamentuari bere egoitzan hartzeagatik eta lan horren ondorioz hartutako BENETAKO KONPROMISOAGATIK.